

PELLO ZUBIRIA

# *The Idiot Cycle:* gaixotzen zaituenak sendatuko zaituela?

Urri honetan salgai jarriko den *The Idiot Cycle* dokumentalak inarrosarazi behar lituzke bazterrak, erakusten duelako gai kimiko kutsagarriak inolako kontrolik gabe merkaturatzen dituzten enpresa handiak berak direla gero kutsadurak eragingo dituen kantzerrak artatzeko botikak saltzen dituztenak. Baina zenbatek ikusiko du filma?

2009KO IRAILEAN ESTREINATU zuten Kanadako Vancouverren 500 ikusleren aurrean. Gero Montreal eta Amsterdameko festibaletan eman zuten. Aurten, Grezian osasunaren inguruko gaiekin burutzen den zinemaldian erakutsi dute. Bi dozena gehiago aurkezpen programatuta zeuden 2010erako Ingalaterra, Herbehereak, Norvegia, Libano, Kroazia, Bosnia, Italia eta Frantzia. Guregandik hurbilen Bordele ondoko Marmanden ikusarazi dute urriaren 11an eta Okzitaniako Tolosan 15ean eta 16an. DVDan egunokaz jarriko ei dute salgai. *The Idiot Cycle*, bigarren titulutzat daramana “Kantzerraz orain arte esan ez dizutena”.

Filmaren egilea Emmanuelle Schick García (1977) gaztea da. Aita kanadarraren eta ama espainolaren alaba, txikitatik Kanadan bizi da eta lehendik badu filma sariturik, hala nola zinema pornografikoaren barrunbeak kontatzen dituen *La petite morte*, edo 1987ko errugbiko munduko kopan Frantziako ekipoak egindako balentrietan arakatzen duen *20 ans déjà!*

Oraingoan, baina, nekez izango du arrakastarik *The Idiot Cycle* bere sorterri Kanadan. Banaketa komertziala bermatzeko beharrezkoa den aseguru bat ez die egileei inork sinatu nahi. *Error and Omissions Insurance*, E&O aseguru deitua, derrigorrez

behar dute, norbaiten salaketarik egonez gero zigorraren ordainketa segurtatzeko. Inork poliza saltzerik ez dute lortu. Emmanuelle Schickek azaldu duenez, aseguru mota horiek saltzen dituzten konpainia askok eskuak garbi nahi dituzte, bezeroen artean bioteknologiako eta petrokimikako korporazioak dituztelako.

*The Ecologist* hilabetekari ingelesak elkarriketatu du Schick iraileko zenbakirako. Honela bildu du *The Idiot Cycle* edo gurpil ergelaren mamia: “Arazoak sortu ondoren, ez enpresek eta ez gobernuak nahi dute sartu arazo horien iturrian, konplikatuegia delako eta daukagun sistema ekonomikoarentzako etekinik ez dakarrelako. (...) Industriak arazoak ikusten ditu ez arazo moduan baizik eta negozioarako aukera gisa. Herritarrentzako etekinik ez du, baina korporazioentzako bai. Ingurumena (diru publikoz) ‘zaintzeko’ industrietako asko aurretik kutsadura sortu dutenak berak dira, amiantoa bezalako produktu kimiko berriak nahikoa aztertu gabe salgai jarri dituztenak. Horregatik, korporazioek birritan dagite negozioa. Ergelkeria da guk horiei berea egiten lagatzea”.

Filma sei konpainia erraldoitan zentratzen da: Dow Chemical, Basf, Bayer, DuPont, AstraZeneca eta Monsanto. Hauek dira aditu askoren ustez kantzerra sorrarazten duten

Ezkerreko irudia da *The Idiot Cycle* filmaren sustapenerako afixa: gurean katagoriekin erabili izan den danbolin antzeko kaiolan datza hilik arratoia, lekutik mugitu gabe kilometroak korrituta. Laborategiko esperimenteran erabiltzen diren animalietan topikoenetakoa da arratoia, akuria den moduan. *The Idiot Cycle* ren tesietako bat irudikatzen du: konpainia kimiko handienek aurretik aski aztertu eta testean gabeko molekulak zabaltzen dituzte eta gizakiok egiten dugu akurarena, gu gaixotzen garenean hasten baitaie bigarren negozioa multinazionalai: kantzerrak artatzeko erremedio garestiena. Horregatik dio bigarren lehorburuan: “Orain arte minbiziaz esan ez dizutena”. Eskuineko irudian ageri da Emmanuelle Schick García zuzendari kanadarra. Japanese Pop Songs da filmaren ekoizlea: berez 2006an musika egiteko sortua, hiru album kaleratu ditu Internetez; plastikorik ez darabil.

substantzien ekoizle nagusiak eta aldi berean minbizia artatzeko dau den erremedioen ekoizle nagusiak. “Kantzerra da munduan negozioarik handiena mugiarazten duen gaixotasuna” diote filmaren promoziozko paperean. Kimika eta Bake Nobel sariak jaso zituen Linus Pauling jakintsuaren esatera aspaldiko honekin: “Denek jakin beharko lukete ‘kantzerraren kontrako gerra’ iruzur hutsa dela”.

## Herritarrok akuri

*The Idiot Cycle* k bi kutsagarritan sakontzen du nagusiki. Alde batetik Genetikoki Aldatutako Organismoetan: European sarritan jorratzen dira hedabideetan, horien inguruko polemikak gori diraelako. Bestetik dioxinek eragindako kutsaduran.

Aipatu sei konpainia erraldoiak dira kutsatzaile nagusiak, baina horiekin batera hirietako hondakinak kiskaltzen dituzten errauste plantak dira dioxina isurle gogorrak. “Jendeak honetan ere —dio Schickek— uste du arazorik ez dagoela horretaz ezer entzun ez duelako, edo iruditzen zaio ez dela hainbesterako izango, industriak izugarri lan ona egin baitu arazoa tribializatzen”.

Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan errauste plantarekin darabilen antzeko kantuarekin ari da industria mundu osoan: ez dagoela kutsadura

JPS FILMS PRESENTS  
**THE IDIOT CYCLE**  
WHAT YOU AREN'T BEING TOLD ABOUT CANCER



A FILM BY EMMANUELLE SCHICK GARCIA  
WRITTEN BY EMMANUELLE SCHICK GARCIA EDITOR Yael BITTON CAMERA JEAN MARC ABELA  
AND FLORIAN GEYER SOUND RECORDIST TIMOTHÉE ALAZRANI AND WIL MABIAK MUSIC COMPOSED BY  
DAVID DANAN AND JOSEPH GUIGNÉ PRODUCED BY EMMANUELLE SCHICK GARCIA AND LAÏLA TAHAR  
JPS Films



horien eragina demostratzen duen azterketa zientifiko nabarmenik, errauste plantena ez den dioxina asko dagoela airean.... Emmanuelle Schickek filmeratutako zientzialariek diote, aldiz, 150 dioxina ezberdin daudela eta ondo bereizita daudela kantzerra eragiteko arriskugarrienak eta gainerakoak; ezberdinak direla, esaterako, basoak erretakoan sortzen direnak eta plastikoen ekoizpenean edo erreketan sortutakoak.

Gaiotako ikerketak baldintzatzen dituzten beste bi faktore azpimarratu ditu Schickek. Dioxinen ikertzai-leak sakonera bateraino iristen dira, hortik aurrera barneratzeak garesti jotzen du eta ez zaie pagatzen jarraitzeko. Baina hori baino okerragoa da ikerketak eta arriskuen balorazioak

egin behar dituzten zientzialari asko zuzenean ez bada zeharka konpainia kimikoei pagatuta egotea. Kasu nabarmen bat aipatzekotan, Kantzerraren Ikerketarako Nazioarteko Agentzian (IARC ingelesezko sigletan) aholkulari dagoen Rice dokto-rea aldi berean Bayer multinazionalaren barruan transgenikoez okupatzen den Cropscience filialean ari da eta aldi berean AEBetako petrolio ekoizleen institutuaren aholkulari ere bada, bentzenoaren eraginak ikertzen dituen batzordean. Petrolio enpresek pagatutako gizona bentzenoaren arriskuez gomendioak ematen...

Filmak agerian utzi nahi du kantzerrari dagokionez erakunde publikoak huts egiten ari direla herritarrak

babesteko daukaten betebeharrean. Gobernuaz ari da, baina baita ere unibertsitatez, kontrol erakundeez, eta abar.

Kritika gehiago badauzka Schickek. Ez dator bat ekologistek eta nekazariak beren protestak elikaduran zentratzearekin. “Industriak erantzun dezake geure esku dagoela aukeratzea, beste zerbait eros dezakegula (...) Aldiz osasunaren gaiari nekezago egin dakioke ezikusia. Denok ezagutzen dugu norbait kantzerra duena, denok nahi ditugu geure buruak eta gure hurbilekoenak zaindu eritasunetik; horregatik industriak eten gabe eragozten du eztabaida hau”.

Kexu da ere komunikabide nagusietan oso aldi bakanetan jorratzen direlako gaiok eta gehienetan modu anekdotikoan, egunero herritarrek arnasten, jaten edo ukitzen dituzten milioika molekula artifizialek jendeen osasunari dakarzkieten kalteak ez daude agenda informatiboetan.


Milioika molekula berri horietatik oso gutxi izan dira aztertutako osasunean duten eraginez, eta bi edo gehiagok elkarrekin sinergiaz eragin ditzaketen kalteak aipatu ere ez dira egiten. Arretarik gabe, produktu berriak jartzen dituzte salgai, merkaturatik ateratzen direnak –amianto, kasurako– kalte handiak egindakoan debekatzen dira. Eta kantzerrak diagnostikatutakoan konpainia kimiko berak dira erremedio garestien saltzaile.

Ziklo ergelean bizi gara Euskal Herrian ere. Tumorea aurkituko didatenean, zementu fabrikako nagusia buru duen mutualitatean artatuko naute, maitekiro, hori bai. ■



**ZINKUNEGI**  
**OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia

